

**zeure onerako**  
ZEURE ONERAKO

**comfia**       
langile komisioren finantza eta  
administrazio zerbitzuen federazioa

# Bulego eta Langeletarako

# Lan Hitzarmena



# 2009 - 2012

**BAO 107.zk (2011/06/06)**

## AURKIBIDEA

1 artikulua	Aplikazio eremua.....	2 orria
2 artikulua	Lurralde eremua	
3 artikulua	Hitzarmenaren indarraldia, luzapena eta horren amaiera	
4 artikulua	Langile eremua	
5 artikulua	Osotasunarekiko lotura	
6 artikulua	Eskuratutako hobekuntzak errespetatzea.....	3 orria
7 artikulua	Hitzarmena zaintzeko eta interpretatzeko batzorde paritarioa	
8 artikulua	Lanpostu hutsen betetzea	
9 artikulua	Lanpostuz igotzea eta mailaz igotzea	
10 artikulua	Lanpostu hutsak betetzeko arauak.....	4 orria
11 artikulua	Deialdiaren jakinarazpena.....	5 orria
12 artikulua	Prestakuntza	
13 artikulua	Lanbide kategoriak.....	6 orria
14 artikulua	Lanaldia.....	8 orria
15 artikulua	Oporrak	
16 artikulua	Ordaindutako baimenak	
17 artikulua	Lana eta familia bateragarri igitea.....	9 orria
18 artikulua	Soldatarik gabeko baimenak.....	11 orria
19 artikulua	Hutsegiteak eta zigorrak	
20 artikulua	Antzinasuna	
21 artikulua	Gaixotasunagatiko eta lan istripuagatiko prestazioak	
22 artikulua	Lansariak.....	12 orria
23 artikulua	Aparteko ordainsariak	
24 artikulua	Gaueko lana	
25 artikulua	Dietak eta bidaiak	
26 artikulua	Bermatutako gutxienekoa.....	13 orria
27 artikulua	Langilearen dimisioa	
28 artikulua	Biltzeko eskubidea eta sindikatuko kide izateko eskubidea	
29 artikulua	Sindikatuaren eskubide eta betebeharrak	
30 artikulua	Kargu sindikalen eszedentzia.....	15 orria
31 artikulua	Enpresa edo lantokietako batzordeak	
32 artikulua	Langileen ordezkarien bermeak.....	16 orria
33 artikulua	Osasun-azterketa	
34 artikulua	Erretiro adina aurreratzea	
35 artikulua	Zuzenbide osagarria	
36 artikulua	Lan-ordenantza	
37 artikulua	Hitzarmena ez aplikatzeko klausula.....	17 orria
37bis artikulua	Langileen Estatutuaren 41.6 eta 82.3 artikuluetan azaltzen diren Kontsulta Aldietan Desadostasunak Konpontzeko prozedura.	
38 artikulua	Txanda kontratua	
	Xedapen iragankorra	
1.	Xedapen Gehigarria.....	19 orria
2.	Xedapen Gehigarria	
	2009-2010ko Soldata taulak.....	20 orria
	Eranskina: 2011 urteko soldata errebisioa.....	22 orria
	2011 urteko soldata taulak.....	23 orria

## **1go artikulua.- Aplikazio-eremua**

Hitzarmen Kolektibo Probintzial honek honako enpresa hauetako langileen lan-harremanak arautuko ditu:

- Ikasketa Teknikoak eta Delineazioa
- Ganberak, Elkargoak eta Elkarateak.
- Finken Administratzaileak.
- Plangintzarako hainbat Bulego.
- Enpresa-antolaketa eta kontabilitate-antolaketa.
- Igorpen Kobratzaileak eta Mezularitzak.
- Informatikako Zerbitzu Enpresak.
- Ingeniaritzak eta Aholkularitzak.
- Beste Elkarate batzuetan barne hartu gabeko Bulegoak eta Enpresak, eta Bulegoetako eta Langeletako Lan Ordenantzari atxikita daudenak.

## **2. artikulua.- Lurralde eremua**

Hitzarmen hau helbide soziala edo lantokia Bizkaian duten enpresa guztiei aplikatuko zaie.

## **3. artikulua.- Hitzarmenaren indarraldia, luzapena eta horren amaiera**

Hitzarmen hau legezkoztat jo diren alderdiek sinatzen duten egunean sartuko da indarrean. Hitzarmen honen indarraldia lau urtekoa izango da, hau da 2009. urteko urtarrilaren 1etik 2012. urteko abenduaren 31 arte; joan-etorriak, dietak eta kilometrajea izan ezik, horiek ez dute atzeraeraginik izango, Hitzarmen hau sinatzen den egunetik aurrerako indarraldia izango baitute.

Hitzarmenaren amaiera 2012 urteko abenduaren 15ean iragarriko eta bi alderdiek konpromisoa hartu dute hurrengo Hitzarmenaren gaineko hausnarketak —aurreproiektua aurkezten den egunetik zenbatzen hasita— hamabost eguneko epean hasteko, bai langileen ordezkarien aldetik, bai enpresaren ordezkarien aldetik.

## **4. artikulua.- Langile eremua**

Hitzarmen honek 1. artikuluan azaltzen diren enpresei atxikiriko langile guztiei eragingo die, salbu eta abuztuaren 1eko 1.382/1985 Errege Dekretuan adierazitako goi-mailako zuzendaritzako langileak.

## **5. artikulua.- Osotasunarekiko lotura**

Itundutako baldintzek osotasun organiko eta zatiezina eratzen dutenez, Hitzarmen hau deuseza izango da eta ez du inolako ondorioz izango Agintaritzak edo Jurisdikzio eskudunak, berari dagoz-kion ahalmenak betez, itunen bati eragozpenak jartzen badizkio edo bertan behera uzten badu, edota hitzarmena ez badu bere osotasunean onartzen; hitzarmena osorik eta zatitu gabe aplikatu behar baita.

## **6. artikulua.- Eskuratutako hobekuntzak errespetatzea**

Norberak eskuratutako eskubide gisa errespetatuko dira Hitzarmen hau sinatzean egon litezkeen egoerak, betiere urteko osotasunean zenbatuta hitzarmenean ezarrirakoak baino hobekuntzak badira.

## **7. artikulua.- Hitzarmena zaintzeko eta interpretatzeko batzorde paritarioa**

1. Batzorde Paritarioari aginduko zaio Hitzarmen honetako itunak zaintzeko eta interpretatzeko. Batzorde hori Hitzarmena «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita gehienezko hogeitun eguneko epean osatuko da.

2. Adierazitako eginkizunez gain, Hitzarmen honen testuinguruan sortzen diren gatazka kolektiboen kasuan, Batzorde Paritarioa berehala batzartzeko eskatu ahal izango du gatazkan dauden alderdietako edozeinek, gatazkan dauden alderdientzat loteslea izango den akordiora iriste aldera. Akordiorik lortuko ez balitz, ordezkarientzako edozeinek legitimazioa izango du Preco lanbidearteko akordioko arbitraje, mediazio edo kontziliazio bat eskatzeko, eta horretara Batzorde Paritarioko gainerako ordezkariek ere joan beharko dute. Alderdi guztiek aintzat hartuko dute ematen den laudoa, eta gisa horretan jakinaraziko zaie gatazkan dauden alderdiei.

3. Alderdi sinatzaileek adierazitako Batzordearen jardunbide araudia erabakiko dute. Batzorde hori hitzarmen hau sinatu duten alderdietako bakoitzeko lau ordezkarik osatuko dute.

4. Honako hau Batzorde Paritarioaren helbidea: Lan Harremanen Kontseilua (LHK) egoitza, Bilboko Urkixo zumarkalea, 2.-3. ezkerria.

## **8 artikulua.- Lanpostu hutsen betetzea**

Enpresak libreki beteko ditu bete beharreko lanpostuak, bai lanpostu berriak badira, bai lanpostu hutsak badira:

- a) Tituludunek bete beharrekoak, nola teknika-eremuan hala administrazio-eremuan.
- b) Beste kategorian batek bete behar baditu konfiantzako, zuzendaritzako, edo egituraren maila guztietan agintezko eginkizuna duten lanpostuak.

Nolanahi ere, enpresa bakoitzean aurretiaz zeuden arauak kontuan hartuko dira.

## **9. artikulua.- Lanpostuz igotzea eta mailaz igotzea**

1. Enpresen zerbitzuko urgazleek lehentasuna izango dute administrazio-kategoriako lanpostuak betetzeko; betiere sartu nahi duten izangaiek lortzen duten puntuazio bera lortzen badute haiek ere lanpostu horretarako egindako azterketan.

2. Dagokien kategorian lau urteko antzintasuna duten administrari laguntzaileak eta kalkatzaileak goragoko hurrengo kategoriara igoko dira, hurrenez hurren, kategorian horietan lanpostu hutsak daudenean, eta horretarako ez dute inolako probarik egin beharko, salbu eta

enpresariak behar den moduan egiaztatzen badu langileak ez duela gaitasunik adierazitako lanpostua betetzeko. Lanpostu hutsik ez badago, bost urteren buruan igoko da lanpostuz automatikoki, betiere langilea 1984ko ekainaren 2an plantillakoa bazen. Hortaz, adierazitako data horretatik aurrera enpresan sartutako administrari laguntzaileak eta kalkatzaileak kategoria horietan lanpostu hutsak daudenean igoko dira lanpostuz.

3. Langileak mailaz igo edo lanpostuz igo ahal izateko horretarako ahalmena izatea eskatuko da soilik, hau da, lanpostu horiek betetzeko gaitasuna izatea.

## **10. artikulua.- Lanpostu hutsak betetzeko arauak**

1.- Lanpostu berriak sortzeagatik edo hutsik geratu diren lanpostuak betetzeagatik sortzen diren lanpostu hutsi dagokionez, honako oinarriko irizpide hauek edukiko ditu kontuan enpresak:

- a) Hitzarmen honen eraginpeko langile guztiek parte hartu ahal izango dute, horretarako langile horiek duten goragoko kategorian dagoen edozein lanpostu huts eskatu beharko dute.
- b) Enpresak beharrezkotzat jotzen duenean, dagozkion probak egin ahal izango ditu bete nahi den lanpostuak eskatzen dituen baldintzak izangaiek betetzen ote dituzten egiaztatzeko
- c) Izangaiek baldintza berdinetan badaude, enpresako izangaiek lehentasuna izango dute enpresatik kanpoko izangaiei aurretik, eta enpresako langileen artean, lanpostu hutsa dagoen sail bereko langileek izango dute lehentasuna. Aurreko paragrafoan azaltzen den lehentasuna dagoen kasuetan, edota azaltzen ez denetan, izangaiek baldintza berdinetan badaude, antzintasun handiena duenari emango zaio lanpostua.
- d) Izangaiei eskatzen zaizkien baldintzak zenbat diren aztertzeko b) paragrafoan edaturikoa ez ezik zuzendaritzak agintzen dituen izangai guztien merituen balorazioa ere kontuan izango da.
- e) Mailaz igotze guztiak probaldia amaitutakoan gauzatuko dira, eta lanpostu berria, agintezko lanpostua bada, probaldia amaitu eta handik sei hilabetera emango zaio langileari, eta gainerako kasuetan hiru hilabetera, salbu eta probaldi horretatik ondorioztatzen bada aukeratutako langilea ez dela egokia lanpostu hutsa betetzeko. Kasu horretan aurreko egoeran jarraituko du langileak, eta lanpostu hutsaren deialdia egingo da berriz.
- f) Langileen legezko ordezkariak izendatzen duen langileen ordezkaria edo langileen ordezkariarik edo Enpresa Batzorderik ez badago, langileek izendatzen duten langilea lanpostu berriak edo lanpostu hutsak betetzeko deitutako probak kalifikatu beharko dituen epaimahaiko partaidea izango da.

2.- Oro har, eta lanpostu hutsak edo lanpostu berriak betetzeari dagokionez, enpresek kontuan izango dituzte Hitzarmen hau indarrean jarri aurretik gai honi buruz enpresa horietan zeuden barnearauak.



## 11. artikulua.- Deialdiaren jakinarazpena -

Deialdiari buruzko oharretan honako baldintza hauek azalduko dira:

- a) Eskatzen diren ezagutzak edo titulazioa.
- b) Beteko den lanpostuaren kategoria enpresaren barruan.
- c) Lanpostuan beteko diren oinarritzko eginkizunen definizioa.
- d) Egingo diren proben zerrenda eta horien oinarritzko edukia.

## 12. artikulua.- Prestakuntza

Hitzarmen honen eraginpeko langileek honako eskubide hauek izango dituzte:

- a) Azterketak egitera joateko behar dituzten baimenak izateko, eta enpresan jarritako erregimena txandakakoa bada, lan-txanda aukeratzeko lehentasuna izango dute titulu akademikoa edo lanbide-titulua lortzeko ikasketak normaltasunez egiten badituzte.
  - b) Lanbide-prestakuntzako ikastaroetara joateko lanaldi arrunta egokitzeko, edo lanbide-prestakuntzarako edo lanbide-hobekuntzarako dagokion baimena (lanpostua gorde egingo zaie).
1. Lanbide-titulua, eskola-graduata edo batxilergoa lortzeko Hezkuntza Ministerioak onartutako ikastetxe ofizialek antolatutako ikastaroetan matrikulatuta dauden 19 urtera bitarteko langileek urtean 180 ordu izateko eskubidea izango dute. Ordu horiek enpresaren kontura izango dira eta langile bakoitzaren premien arabera banatuko dira ikasturtean, eta ikasturtearen hasieran edo langilea enpresan sartzen denean negoziatuko dira, betiere premiak justifikatu ondoren. Adierazitako orduak baliatzeak ez du langilearen ezein eskubide murriztuko, ez eta langileak edozein kontzepturengatik jasotzen duen ezein lansari ere. 19 urtera bitarteko langileentzat ezarritako baldintza berezi horiek ez zaizkie gehituko inolaz ere artikuluko honetan itundutako baldintza orokorreari.
  2. Aurreko paragrafoan azaltzen diren kasu guztietan, enpresa-zuzendaritzak eskatu ahal izango dio langileari ikastetxeko ziurtagiriak aurkezteko. Ziurtagiri horiek langilearen asistentzia egiaztatuko dute, eta behin baino gehiagotan ez bada bertaratu ikastetxera artikuluko honetan ezartzen diren onurak kenduko zaizkio.
  3. Langile guztiek egin ahal izango dituzte prestakuntza-ikastaroak, baldin eta deialdian eskatutako baldintzak betetzen badituzte.
  4. Langile guztiek egin ahal izango dituzte prestakuntza-ikastaroak, baldin eta deialdian eskatutako baldintzak betetzen badituzte..
  5. Prestakuntza-gastuetarako dirua gordetzen duten enpresek Prestakuntza Batzordea osatu ahal izango dute. Enpresa Batzordeak izendatutako bi ordezkari edo Langileen bi Ordezkari gutxienez Batzorde horretako partaideak izango dira. Batzorde horren helburua aholkularitza-lanak egitea izango da, bai eta prestakuntzaren ikuspegi orokorra bermatzea ere enpresan.

### **13. artikulua- Lanbide Kategoriak**

Hitzarmen honetako soldata-taulan biltzen diren kategorien definizioak honako hauek dira:

#### **Kalkuluko eta diseinuko teknikaria**

Langile horrek, titulaziorik izan gabe, teknikari tituludunen berariazko zereginak betetzen laguntzen du eta lan egiten duen ataleko edo saileko berezko erantzukizunak izango ditu.

#### **Analista/programatzailea**

Programatzaile horrek informatikako instalazio handietan eskarmentu handia du, tratamendu-unitateen informazio arautua landu eta dokumentatzen du. Horretaz gain, programazio-hizkuntzari eta mekanizatu behar den proiektuari buruzko ezagutza sakona eskatzen duten aplikazio zailak aztertu eta aplikazio horietako programak idazten ditu.

#### **2. mailako delineaizaile proiektugilea**

Titulurik gabeko teknikari horrek bere zerbitzuak eskaintzen dituen atalean betetzen diren espezialitateetan teknikari nagusi hurrenak agintzen diona proiektatu edo zehazten du. Horretaz gain, bezeroak eskatzen dituen datuak eta baldintza teknikoak kontuan izanda, bururatzen zaiona gauzatzen du. Langile horrek dituen zereginen artean, honako hauek dira nagusiak: proiektu mota oro aztertu eta planteatzea, eta berarekin lanean ari diren delineaizaleei datuak eta aholkuak ematea.

#### **Bidaiantea**

Enpresa bakar baten zerbitzura egonik, langile horrek alde zuzenetik zehaztutako ibilbidea egiten du artikuluko eskaintzeko, eskariak jasotzeko, bezeroei produktuen berri emateko, jasotako mandatuak helarazteko eta, bidaietako denboratik at, mandatuak betetzen direla ziurtatzeko, baina betiere langilearen duintasun profesionalari kalterik egin gabe.

#### **2. mailako programatzailea**

Programatzaile horrek, enpresaren instalazioan gehien erabiltzen diren hizkuntzen ezagutza teorikoa eta praktikoa izanik eta instalazio horren software-sistemaren oinarriko ezagutza izanik, programak diseinatu eta kodifikatzen ditu agintzen zaion programazio-hizkuntzan; konpilazioko eta mihizatze lanak prestatzen ditu; behar diren probak egiten ditu eta jatorrizko azterlanean parte hartu ez duen batek azterlan horrekin jarraitu edo lan hori aldatu ahal izateko moduan dokumentatzen du lana. Instalazio txiki eta ertainetan analistarentzako eta programatzailearentzako deskribatutako lanak egingo ditu, betiere lan egiten duen informatika bere alor txikira mugatuta. Instalazio txikietan operadoreen eginkizunak ere beteko ditu.

## Atezaina

Langile horrek agindupean gutxienez hiru langile izanik, urgazleen, ordenantzen, mandatarien eta garbitzaileen zerbitzuak zainduko ditu eta horien ardura izango du. Enpresako ateak eta lantzetarako sarrerak zaindu behar ditu.

## 2. mailako operadorea

Langile horrek, informatikako oinarrizko ezagutza izanik, unitate periferikoak prestatzen ditu, euskarri magnetikoak, paper jarraitua eta fitxa zulatuak kargatzen eta deskargatzen ditu adierazitako unitateetan, betiere operadorearen edota sistema eragilearen instrukzioei jarraituz. Horretaz gain, gailuei modu egokian eusten die behar bezala funtziona dezaten; ordenagailua dagoen sailean eta sail horren inguruan behar diren garraioak eta manipulazioak egingo ditu. Informatika-instalazio txiki eta ertainetan operadorearentzako deskribaturiko zereginak ere egingo ditu, betiere langile horrek lan egiten duen informatika ingurune txikira mugatuta.

## 2. mailako marrazkilaria

Teknikari horrek kalkatzaile-lanak ez ezik, krokisa izanik, plano orokor edo xehetasun-plano zehatzak eta akotatuak ere egiten ditu.

## 2. mailako delineatzailea

2. mailako operadoreak egiten dituen zereginak beteko ditu, baina ingeniartzako eta delineazioko enpresetarako diren lanetan.

## Teknikari auxiliarra

20 urte baino gutxiagoko langile horrek, delineazio adarrean hasi berria izanik, bulegoko espezialista kategorietako oinarrizko zeregin auxiliarrak egiten ditu, bulegoan hasteko eta zereginak betetzeko gai izateko behar duen lanbide-gaitasuna lortzeko. Zeregin horietaz gain, dagokion kategoriako berezko zereginak ere bete beharko ditu, hala nola, enkarguak egin, posta banatu eta oinarrizko beste zeregin batzuk.

## Zulatzailea/grabatzailea

- a) **Lehen mailakoa:** langile horrek, zulatzeko makinak eta datuak egiaztatzeko makinak erabiltzen jakinik, datu horiek fitxetan transkribatzen ditu; horretarako langileak berak sortutako programak erabiltzen ditu, betiere zulatu behar den diseinua kontuan izanik. Horretaz gain, transkribatutako lana egiaztatzen du eta agintzen zaizkion lanen sarrera eta irteera erregistratzen du. Egiaz lan egindako segidako 500 ordutan ordu bakoitzeko 15.000 pultsazioko batez bestekoa lortzen denean eskuratuko da categoria hori; adierazitako categoria lortutakoan, ordu bakoitzeko 12.000 pultsazio eta ehuneko 2 akats baino gehiago ez egitea hartuko da eska daitekeen gutxieneko errendimendutzat.
- b) **Bigarren mailakoa:** 1. mailako zulatzaileari dagozkion zeregin berak egingo ditu, baina categoria honetan eska daitekeen gutxieneko errendimenduak eskatuko du ordu bakoitzeko 9.000 pultsazio eta ehuneko 4 akats baino gehiago ez egitea. Ordu bakoitzeko pultsazioak kalkulatzeko lortutako pultsazioak lan horretan emandako ordu kopuruarekin zatituko dira.



#### 14. artikulua.- Lanaldia

1. Hitzarmena indarrean dagoen urte bakoitzean (2009, 2010, 2011 eta 2012) egiaz lan egindako lanaldia gehienez ere 40 ordu izango da astean, astelehenetik ostiralera. Urtean 1.742 ordu lan egingo dira gehienez ere. Ezein jaiegun mota ez da berreskuragarria izango. Urteko edozein alditan lanaldi etengabea ezarrita daukaten enpresek ezin izango dute lanaldia handitu; eta aldi bateko lanaldiak ezin izango dira beste aldikoekin konpentsatu. Aste bakoitzean 40 ordu baino gutxiagoko lanaldia duten enpresek larunbatetan lan egin ahal izango dute, betiere lan-premien arabera.
2. Udan lanaldi trinkoa ezarrita daukaten enpresek ezin izango dute inolaz ere astean 35 ordu baino gehiago lan egin.
3. Lanaldi etengabea egiten den kasuetan, aldi onuragarrieneko baldintzak gordeko dira, gaur egun enpresa bakoitzean egiten den bezala, betiere 40 orduak gainditu gabe.
4. Lau orduko edo gutxiagoko eguneroko lanaldiak ezin izango dira zatitu.
5. Lan Egutegia: Enpresak urtero egingo du lan-egutegia, eta egutegi horren ale bat ondo ikusteko leku batean jarriko da lantoki bakoitzean urtarrilaren 31 baino lehen. Egutegi horrek egiaz lan egindako lanaldi kopurua zehaztuko du, atsedendialdiak eta oporrak deskontatuta, lanaldi kopuru hori aurreikusitako urteko lanaldiarekin zatitzeko eta langile bakoitzak bere eguneroko lanaldian egiaz lan egindako lanorduak zein diren definitzeko. Hala badagokio, ordutegiak, zubiak eta abar ere ager daitezke.
6. Langileek urtean norbere aukerako bi egun hartzeko eskubide kontsolidatua izango dute, urtean 1.742 orduko benetako lanaldiaren kalterik gabe. Egun horiek enpresaren eta langilearen artean adostuko dira.

#### 15. Artikulua.- Oporrak

- a) Enpresaren zerbitzura dauden langile guztiek ordainduriko 30 egun natural hartuko dituzte opor gisa urte bakoitzean.
- b) Oporrak beti jai-bezpera ez den lanegunean hasiko dira, eta lanean hasi aurreko egunean amaituko, salbu eta langile guztientzat urteko oporraldi finkoa ezarrita daukaten enpresetan.
- c) Dagokion egutegiari jarraiki, oporrak hartzeko egunak zehaztutakoan, langileari ABeko egoera dela-eta, medikuak baja ematen badiu oporrak hartu baino lehen, oporraldi berria emango zaio urte berean, enpresa ixten denean izan ezik, orduan oporrak zenbatuko baitira.

#### 16. artikulua.- Ordaindutako baimenak

Langileak, aldez aurretik jakinarazita eta egiaztatuta, lanetik joan ahal izango dira honako arrazoiren batengatik eta honako denbora honetarako:

- a) Langilea ezkontzen bada, egutegiko hamabost egun.
- b) Bi egun seme edo alabaren jaiotzagatik eta odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasunezko bigarren mailarainoko senitartekoen heriotzagatik, istripuagatik edo gaixotasun larriagatik, ospitaleratzeagatik edo etxean atsedean hartzea eskatzen duen ebakuntza kirurgikoagatik. Arrazoi hori dela-eta, langileak 200 kilometro baino gehiagoko bidaia egin behar badu, joaneko edo etorriko bidaia bakoitzeko epea lau egunekoa izango da.
- c) Egun bat ohiko etxebizitzaz aldatzeagatik.

- d) Betebehar publiko eta pertsonal saihestezina betetzeko, beharrezkoa den denbora. Adierazitako betebeharra egiteak behar den lana gauzatzea lanorduen %20 baino gehiago eragozten badu hiru hileko aldian, betebeharra egiteagatik edo kargua betetzeagatik, langileak kalte-ordaina jasoko du. Kalte-ordain horren zenbatekoa langileak enpresan jasotzen duen soldatari deskontatuko zaio.
- e) Eginkizun sindikalak edo langileen ordezkari-taldeen lanak betetzeko Legean eta Hitzarmen honetan ezarritako baldintzei jarraituko zaie.
- f) Hitzarmen honetako 12.1. artikuluan itundutako prestakuntzaren kasu bereziak Hitzarmen honetan ezarritako baldintzen eta erabakitako gehienezko denboraren arabera ebatziko dira.
- g) Irakaskuntza homologatuko azken azterketak egitera joateko beharrezkoa den denbora.
- h) Langileen Estatutuaren 4. idatz-zatiaren 37. artikuluan ezarritako edoskitzeagatik baimena lanaldiaren hasieran edo amaieran hartu ahal izango da. Baimen hori ordubete lanera ez agertzean datza. Emakumezko langileek lizentzia adierazitako moduan hartu ahal izango dute, edota Langileen Estatutuaren 37. artikuluko 4. idatz-zatian ezarritakoaren arabera. Era berean, Langileen Estatutuaren 37.4. artikuluan arabera langileak lanera ez etortzeko ordu hori amatasun-bajagatik lizentziaren ondoren hartu ahal izango du.  
Hitzarmen honetan onartu da lan egiten duten pertsonetan familiako bizitza eta lana bateragarri bihurtzeari buruzko azaroaren 5eko 39/1999 legeak ezarri duena beteko dela ondorio guztietarako.
- i) Izatezko bikoteak: Bikote horiek ezkonduetako bikotetzat hartuko dira artikuluan honetan biltzen diren kasuetarako, baldin eta bizikidetzako ziurtagiria eta dagokion Erregistroko inskripzioa aurkezten badute. Izatezko bikoteek eduki lezaketen ezkontzagatik lizentzia ezin izango da berriro hartu hiru urteko epean.

## 17. artikulua.—Lana eta familia bateragarri egitea

Emakumeen eta gizonen egiazko berdintasuna bermatzeko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak xedatutakoari jarraituko zaio (horren bidez, Langileen Estatutuaren hainbat artikulua aldatzen dira).

Informazio gisa hainbat artikulua sartzen dira, Legeko gainerako artikulua baztertu gabe.

### 1. Langileen Estatutuko 38.2 artikulua

Lan-egutegian finkatutako oporraldian haurdunaldiaren, erditzearen edo bularra ematearen ondoriozko aldi baterako ezintasuna edo Langileen Estatutuko 48.4 artikuluan urreikusitako lan-kontratuaren etenaldia (erditze, adopzio edo harreragatik baimena) gertatzea.

Kasu horietan oporrak aldi-baterako ezintasunaz edo Langileen Estatutuko 48.4 artikuluko baimenaz besteko egunetan hartu ahal izango dira, etenaldia amaitutakoan, nahiz eta dagokion urte naturala amaitu.

### 2. Langileen Estatutuko 37,5 artikulua

Lanaldi-murrizketa legezko zainzagatik:

Legezko zaintza dela-eta, zortzi urte baino gutxiagoko haur bat edo elbarri fisiko, psikiko edo zentzumenezkoa (ordaindutako jarduerarik betetzen ez badu) zaindu behar duen langileak lanaldia laburtzeko eskubidea izango du, lanaldiaren laburtzeak irauten duen gutxienezko zortzirena eta gehienezko erdia bitarteko soldataren batez besteko gutxitzearekin.

### 3. Langileen Estatutuko 46,3 artikulua

Seme-alabak eta ahaideak zaintzeagatiko eszedentzia:

Langileek gehienez hiru urteko eszedentzia hartzeko eskubidea izango dute norberaren edo adoptatutako seme-alaba bakoitza zaintzeko, nahiz eta behin betiko harrerako moduan edo adopzioaurreko egoeran hartu, aldi baterako izan ala ez, umearen jaiotegunetik edo epaileen edo administrazioaren ebazpenaren egunetik zenbatzen hasita.

Bi urtetik gorakoa izango ez den eszedentzia hartzeko eskubidea izango dute — negoziazio kolektiboaren ondorioz iraupen luzeagoa ezarri ezean—, halaber, bere kargura dagoen bigarren mailarainoko odolkidetasuneko edo kidetasuneko ahaideren bat zaindu behar duten langileek, baldin eta ahaidea adinagatik, istripuren bat izan duelako edo gaixorik dagoelako edo baliaezintasunagatik, bere kabuz baliatu ezin bada, eta ordaindutako jarduerarik betetzen ez badu.

Idatz-zati honetan jasotako eszedentzia-aldia zatitan baliatu ahal izango da, eta langileen, berezko eskubidea izango da, gizonak nahiz emakumeak izan. Hala ere, enpresa bereko bi langilek edo gehiagok eskubide hori baliatzeko aukera badute arrazoi berarengatik, enpresaburuak mugatu ahal izango du bi langilek aldi berean hartzea, enpresaren funtzionamendurako egiaztatutako arrazoiengatik.

Subjektu eragile berriak beste eszedentzia-aldi baterako eskubidea ematen badu, berriaren hasierak langilea baliatzen ari zenaren amaiera ekarriko du.

Artikulu honetan ezarritakoaren arabera, langilea eszedentziaegoeran dagoen aldia antzinatasunerako zenbatuko da, eta langileak lanbide-prestakuntza ikastarora joateko eskubidea izango du, bereziki berriro ere lanera itzuli behar duenean. Ikastaro horietara joatea enpresaburuak eskatuko dio langileari. Lehenengo urtean langileak lanpostua gordeta edukitzeko eskubidea izango du. Epe hori igaro ostean, talde profesional bereko edo kategoria baliokideko lanpostu bat gordeko zaio.

Hala ere, familia ugaria ofizialki aitortua duen langilearen kasuan, lanpostua gordetzeko epea gehienez 15 hilabetera luzatuko da izaera orokorreko familia ugaria baldin bada, eta gehienez 18 hilabetera, izaera bereziko familia ugaria baldin bada.

### 4. Langileen Estatutuaren 46.2 artikulua

Borondatezko eszedentzia:

Enpresan gutxienez urtebeteko antzinatasuna duen langileak borondatezko eszedentzia hartzeko eskubidea izango du. Eszedentzia-aldi horrek gutxienez lau hilabete iraungo du, eta gehienez bost urte. Aurreko eszedentzia amaitu zenetik lau urte igaro badira soilik baliatu ahal izango du berriz langile berak eskubide hori.

Edozein kasutan, 17. artikulua honetan xedatutakoa etorkizunean izan litezkeen lege-aldaketetara egokituko da.

### **18. artikulua.—Soldatarik gabeko baimenak**

Enpresan urtebeteko antzintasuna duten langileek soldatarik gabeko baimenak hartzeko eskubidea izango dute, 15 egun gehienez ere, eta urtean behin bakarrik.

### **19. artikulua.—Hutsegiteak eta zigorrak**

1. Diziplinari dagokionez, Bulegoei eta Langelei buruzko Lan Ordenantzan ezarritakoaren arabera ebatziko da, bai eta laneko ordenamendu juridikoan indarrean dauden arauen arabera ere, betiere aplikagarriak diren neurrian.
2. Lanera ez etortzea ez da justifikatu gabeko hutsegitez hartuko, betiere lanera ez agertzetik hasita lau egun balioudun igaro aurretik langilearen atxiloketaren berri eman bazaio enpresazuzendaritzari. Nolanahi ere, enpresak ez ditu ordaindu beharko atxiloketaren ondorioz langilea lanera agertu ez den egunei dagozkien soldatak

### **20. artikulua.—Antzintasuna**

1. Zerbitzuan emandako urte bakoitzeko hobariak hiru urtetik hiru urtera ordainduko dira, Hitzarmen honetako soldata-tauletan kategoría bakoitzerako itundutako oinarritzko soldataren %5en arabera.
2. Hala eta guztiz ere, 6. artikuluan itundutakoaren arabera, eta dagoen bezala, antzintasunagatik hirurteko bakoitzeko aurreko idatz-zatian azaltzen diren portzentajea baino portzentaje handiagoa ordaintzen duten enpresek, enpresa horietako langileek —1984ko Hitzarmena indarrean jarri zenean jardunean ari zirenek—personalki eutsiko diete baliatzen zituzten baldintza onuragarrienei.
3. Betetzen diren urteko urtarrilaren 1etik aurrera irabaziko dira hirurteko horiek; horretaz gain, langileak duen azken kategoriaren eta Hitzarmeneko oinarritzko soldataren arabera ordainduko dira hirurteko guztiak.

### **21. artikulua.—Gaixotasunagatiko eta lan istripuagatiko prestazioak**

Eraginpeko enpresetako langileei, bajaren lehenengo egunetik aurrera, bai eta hamabost egun baino gehiago irauten duten gaixotasunetan, gaixotasunagatiko eta laneko ez den istripuagatiko aseguruaren prestazioak soldata errearen ehuneko ehuna osatuko zaie baja-egunetik hasita hamar hilabete arte gehienez ere. Baja hori ezin izango da 10 hilabete baino luzeagoa izan urtean.

Lan-istripuak eragindako aldi baterako ezintasun egoeran dauden langileek soldata errearen %100 jasoko dute lehen baja-egunetik hasita, eta lan-istripuak eragindako aldi baterako ezintasun egoerak irauten duen bitartean.

## **22. artikulua.—Lansariak**

Hitzarmen honen eraginpeko langileen 2009, 2010, 2011 eta 2012. urteetarako lansariak testu honetako eranskinetan azaltzen dira.

Ezarri diren lansarien zenbatekoak honako igoera hauek izango ditu:

I. eranskina: Ingeniaritzako eta Informatikako Sektoreak:

2009. urtea - % 1,9.

2010. urtea - % 1,3.

2011. urtea - Estatuko 2010. urteko KPI gehi 0,6 puntu.

2012. urtea - Estatuko 2011. urteko KPI gehi 0,6 puntu.

II. eranskina: Hitzarmen honen eraginpeko gainerako sektoreak (Ingeniaritzakoa eta Informatikoa salbu);

2009. urtea - % 1,9.

2010. urtea - % 1,3.

2011. urtea - Estatuko 2010. urteko KPI gehi 0,6 puntu.

2012. urtea - Estatuko 2011. urteko KPI gehi 0,6 puntu.

## **23. artikulua.—Aparteko ordainsariak**

1. Enpresen zerbitzura dauden langileek eta Hitzarmen honen eraginpean daudenek hiru aparteko haborokin jasoko dituzte martxoan, uztailean eta abenduan. Haborokin bakoitzaren zenbatekoa honako hau izango da: soldataren pareko hileko soldata gehi antzinatasuna.
2. Aparteko ordainsariak dagokien hilabeteko 15ean eta 20an ordaindu beharko dira.

## **24. artikulua- Gaueko lana**

Ohiko gaueko lana —gaueko 22:00etatik goizeko 06:00ak arte egindako lana hartzen da halakotzat— hitzarmen honetako 22. artikuluan ezarritako soldatei ehuneko ehuna gehituta ordainduko da gehi dagokion antzinatasuna, salbu eta langileari gaueko lanak egiteko berariazko kontratua egin bazaio, hau da, zaintzaile, gauzain eta antzeko lanak egiteko.

## **25. artikulua.- Dietak eta bidaiak**

1. Lan-arrazoiak direla-eta, enpresak langilea bere lantokitik lekuz aldatzen badu, bidaiak, otorduak eta egonaldiak enpresak ordaintzeko eskubidea izango du langileak. Adierazitako gastuak beti justifikatu beharko dira.

a) Espainian barrena egiten diren bidaietarako dieten zenbatekoak 2010, urterako honako hauek izango dira:

- Gosaria: 2,90 euro.

- Bazkaria: 20,43 euro.
  - Afaria: 14,64 euro.
  - Langilearen ibilgailuaren kilometrajea: 0,37 euro kilometro.
- b) Ostatu-gastuak enpresak ordainduko ditu. Enpresak adieraziko du hotelaren kategoria.
- c) Lan-arrazoia direla-eta, langileak bere ibilgailua erabiltzen badu, kilometro bakoitzeko 0,34 euro ordainduko zaizkio, betiere adierazitako bidaiak zerbitzu-eginkizunak eragindakoak badira.
- d) Zenbateko horiek Estatuko aurreko KPI gehi 0,6 puntuko igoera izango dute 2011 eta 2012. urteetan.
2. Langileen mugikortasun geografikoak Langileen Estatutuak biltzen dituen arauak ezartzen dituzten mugak izango ditu, eta arau horien arabera arautuko dira.

## **26. artikulua.- Bermatutako gutxienekoa**

Hitzarmen honen eraginpeko langile guztiei —duten lanbide-kategoria edozein izanik ere— urte bakoitzean gutxieneko igoera bermatuko zaie. Igoera horren zenbatekoa eranskinetan azaltzen da.

## **27. artikulua.- Langilearen dimisioa**

Langileak enpresan duen lanpostutik dimititzen badu, enpresako zuzendaritzari jakinarazi beharko dio idatziz 15 egun natural lehenago. Aurreabisu hori egiten ez bada, aurreabisu gabeko egunei dagozkien martxoko martxoko, uztaileko, edo Eguberrietako aparteko ordainsarien zati proportzionala galduko du langile horrek. Ordainsari horiek ez zaizkio ordainduko, behar den epean ez abisatzeak Enpresari eragindako kalteen ordain gisa.

Aurreko paragrafoan ezarritakoak ez du zerikusirik Langileen Estatutuaren 21. artikuluan biltzen diren kasuetarako aurreikusitako kalte-ordainarekin.

## **28. artikulua.- biltzeko eskubidea eta sindikatuko kide izateko eskubidea**

1. Hitzarmen honen eraginpeko enpresek, betiere uneanunean indarrean dagoen legediak ezarritako arauari jarraiki, utziko diete beren langileei lokaletan bilerak egiten lanorduetatik kanpo, (lokal horien baldintzek bilerak egitea ahalbidetzen badute); betiere enpresaren ohiko jarduerari kalterik eragin gabe.
2. Langile guztiek askatasunez sindikatu etako kide izateko duten eskubidea errespetatuko dute enpresek, eta langile baten lana ezin izango du baldintzatu langilea sindikatu bateko kide ez izateak edo kide izateari uko egiteak. Horretaz gain, ezin izango da kaleratu edo beste edozein modutan kaltetu langile bat sindikatu bateko kide izateagatik ez eta bere sindikatu-jardueragatik ere.

## **29. artikulua.- Sindikatuen eskubide eta betebeharrak**

